

DID I SAY I MISS YOU? (BILBAO)

2026 OTS 27-
2026 MAI 09

Estudioan aurkezten dudana joan den udan Dublingo Temple Bar Gallery + Studios-en egindako izen bereko erakusketaren egokitzapena da. Marrakzi bat izan nuen abiaburu, gelatxo baten barrualdearen deskribapen idatzian oinarrituta zegoena. Gelatxo noizbait ate batez konektatuta egon zen Dublingo erakusketa-aretoarekin. Bertan argi-etengailuak, zirkuitu itxia eta garbiketa-materialak baizik ez zeuden. Erakusketako kuradore Michael Hill-ek bidali zidan testu xehetik abiatuta, ahalegina egin nuen espazio hori irudikatze eta marrazki batean islatzeko, hiri horrekin edo guneari lotutako istorioren batekin dudana harreman afektiboan berriz bilatzeko bulkada saiheste aldera. Horrela, Artxandan bildutako sasi-adarrekin egindako erdiko eskulturak distantzia bat sortu zuen Irlandako arte-zentroarekin eta hango publikoarekin, zuzenean bisitariengana jo nahi zuten intsektuen marrazkiek ez bezala. Orain, Bilbon, uste dut distantziak aldatu egin direla eta laburrak direla ezinbestean. Hemen bizi naiz eta lagunengana laguntzaz sortu nuen lana, duela urte batzuk, hau ezagutzen hasi nintzenean, leku honetatik sortu zen beste baten formen oroitzapen lausoa berreskuratuz eta integratuz.

Aspaldi ari naiz ahalegina egiten neure lanaz modu erreduktibo eta oso tekniko honetan hitz egiteko, kasu bakoitzean distantziak izan duen inplikazioa komentatuz, batzuetan zerbait gehiago sakonduz. Lasaitu egiten nau nire burua horrela irakurtzeak eta komunikatzeak.

Era paraleloan, korridorean aurkezten dudana serieari dagokionez, abiaburua da eskala aldatzea eta dominak eta zintzilario erlijiosoak erreproduzitzea lupa batekin begiratuta. Hasieran, tenpluen fatxadetan ikusten ditugun harrizko irudi landuetara hurbiltzeko, eta, baliabide horrekin —zeinak urruntzea ere badakarren (nire aldetik)—, agian apur bat indargabetzeko nire bizitzaren zati handi batean ez dagokidan jendearen miniaturazko irudikapena lepotik zintzilik eraman dudala pentsatzeak sortzen duen urruntzea.

Did I say I miss you? erakusketaren egitura Temple Bar Gallery + Studios-ek ekoitzi zuen. Burdinaria-lana Adrián Castañedarena da.

Impulso que estás dentro, sal de mi cuerpo seriea Iturribide Etxeko lorategian egin zen, Caniche Editorial-en eta PICE Residencias de AC/E programaren laguntzarekin.

DID I SAY I MISS YOU? (BILBAO)

2026 OTS 27-
2026 MAI 09

JORGE SATORRE, Mexiko Hiria, 1979. Bilbon bizi da eta bertan lan egiten du.

Bere lana banaka aurkeztu dute hainbat instituzio eta galeriatan, besteak beste, hauetan: Temple Bar Gallery + Studios, Dublin (2025); CA2M, Móstoles (2025); CRAC Alsazia, Altkirch (2021); REDCAT, Los Angeles (2018); Museo Tamayo, Mexiko Hiria (2017); Galería Labor, Mexiko Hiria (2017, 2014 eta 2010); Artspace, Auckland (2013); Le Grand Café, St-Nazaire (2010); FormContent, Londres (2010).

Kuradore gisa, erakusketa kolektibo hauek antolatu ditu: Café con leche, piña, huevo con jitomate, cebolla y cilantro, CarrerasMugica, Bilbo (2022) eta Modelling Standard (Erick Beltránek in lankidetzan), Joan Prats Galeria, Bartzelona (2011), eta Alberto Peral-en Redonda, Redonda bakarkako erakusketa, Tecla Sala, L'Hospitalet de Llobregat, Bartzelona (2021).

Bere lana bilduma hauetan dago: Frac des Pays de la Loire. Frantzia; CNAP gordailua, CAPC Bordel. Frantzia; Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía; Museo Tamayo, Mexiko; La Colección Jumex. Mexiko; MUAC. Mexiko; Estrellita Brodsky. Estatu Batuak; De Bruijn-Heijn Collection. Holanda; Davis Museum. Estatu Batuak; Denver Art Museum. Estatu Batuak; Fundación Botín.